



Eskola Kirola – 2019-2020ko lehiaketako Arautegia

BELA

2019-2020ko Arabako Eskolarteko Bela-ontzien Ligak Arabako Bela Federazioaren egutegi ofizialean 2019ko irailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era arte programatuta dauden Optimist mailako estropadak barne hartuko ditu, baina Federazioak berak salbuespenak ezarri ahal izango ditu azaldu beharreko arrazoiengatik.

Estropadek Ligarako puntuak eman ahal izateko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Estropadak Uribarri Ganboako urtegian egitea, aurrez ezarritako egutegiaren arabera, Zuhatzako uhartearen, Gasteizko Ur-kirol Elkartearen eta Landa herriaren artean dagoen triangeluan.
- Gutxienez lehiaketako bi jardunaldi programatuko dira. Horiek asteburuetan egingo dira eta egunero gehienez ere hiru proba egin daitezke, baina laugarren bat egin ahal izango da jokatu ezin izan den proba bat berreskuratzeko.
- Lehenengo eguneko lehenengo proba ez da programatuko 12:00ak baino lehenago, eta azkena inoiz ez 17:00ak baino beranduago.
- Bigarren eguneko azken proba ezin daiteke programatu 15:30 baino beranduago.

Ligarako baliodunak izango dira estropada guztietan jokatzen diren proba guztiak.

1. IBILBIDEAK

Gutxi gorabehera 50 minutuan egin ahal izateko moduan prestatuko dira probetako ibilbideak.

2. PARTE-HARTZAILEA

Ligako parte-hartzailea iritziko zaio Liga osatzen duten estropadetako edozeinetan bere inskripzioa onartu zaion orori.

3. PARTE HARTZEKO BETEBEHARRAK

Ligan parte hartzeko ezinbesteko baldintza hauek egongo dira:

- a) Indarrean dagoen eskola kiroleko lizentzia edukitzea.
- b) Lizentzia izapidetuta daukaten klubaren babespean joatea estropadetara.
- c) Klub bakoitzak laguntzarako ontzi tripulatuak eramatea, ondoren azaltzen den moduan: bat izena emandako optimist bakoitzeko.
- d) Salbuespen gisa, beste lurralde historiko eta/edo autonomia erkidego batzuetatik etorritako talde eta/edo kirolariek parte hartzeko baimena eman ahal izango da.

4. MAILAK

Lau maila ezartzen dira: Kadeteen lehen urtea, haurrak, kimuak eta benjaminak. Horietako bakoitzari ondoko hauek dagozkie:

- a) KADETEEN LEHEN URTEA: 2004
- b) HAURRAK, 2006-2007
- c) KIMUAK, 2008-20079
- d) BENJAMINAK, 2010-2011



5. TALDEAK. IDENTIFIKAZIOAK

- Parte-hartzaile bakoitzak bela zenbaki bat esleituta edukiko du txapelketa osorako.
- Estropada bakoitzean hiru talde egingo dira:
 - a) 1. TALDEA Lehen urteko kadeteen eta haurren mailak.
 - b) 2. TALDEA Kimuen maila
 - c) 3. TALDEA Benjaminen maila
- Talde bakoitzeko parte-hartzaileek probetan bereizgarri bat eramango dute: zinta bat, 30en bat zentimetro luze eta 15 zentimetro zabal, belaren goiko erpinean loturik, ondoko kolore hauek dituena:
 - a) 1. TALDEA Beltza
 - b) 2. TALDEA Laranja kolorea
 - c) 3. TALDEA Horia

6. LIGAKO PUNTUAZIOAK.

Bela-ontzien Estropadetako Araudiaren (RRV delakoaren) A4.1 erregelari jasotako puntuazio baxuko sistema erabiliko da, ondoko honetan izan ezik: estropadarako izena eman ez duen (DNR) edo, izena emanda ere, jokaturako probetan bere emaitza guztiak DNC dituen ontzi batek, estropada horretarako izena eman duten ontzien kopurua eta lau gehiagoko helduera-postuari dagokion puntuazioa jasoko du proba bakoitzean.

- Alde batera utzitako probak
 - a) 1. U. KADETEEN, HAURREN ETA KIMUEN MAILAK
-Alde batera utziko da jokaturako lau probatik bat.
 - b) BENJAMINEN MAILA
-Alde batera utziko da jokaturako hiru probatik bat.
- Berdinketetan, RRV delakoaren A8 erregela aplikatuko da.

7. SARIAK

Materialez osatutako sariak emango zaizkie talde bakoitzaren azkeneko sailkapeneko lehenengo hirurei.

8. DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria